

*irabazten direla verreun egunen indulgenciac, eta Pio zazpigarnac irur-eun egun aldi bacochan. Eta ontas landa indulgencia plenaria Maria Sainduaren vortz besta principalenetan. Oc dire, Concepcione, Nativitate, Anunciacione, Purificacione eta Asuncione, confesatuz eta comunicatuz (.....)*

*Beraz cer erran dezaquet nic guebiago Maria Sainduaren (ohore)tan? Aditu duzue nola errezatu bear duzuen misterio gozosoac, dolorosac eta gloriosac consideratuz. Aditu duzue cer devocione, atencione eta afetuequin erran bear duzuen Arrosario Saindua. (-)ai bada extut erraten bertzeric, baizic deaburac berac erran zuena, hau da, Maria Sainduaren debocionearen azpian dagona, eta perseveranciarequin arrosarioa errezatzen duena extela galduco. Hala erran cion deabruac San Dominicori. Saindu honequin asiniz han arrosarioa esplicatzen, eta honequin finituco dut. Adizazue...*

*Reyanesec erraten du, Florenciaco hirian vici cen Benita deitzen cen emaztequi escandalosa bat. Hiri artara arribatu cen predicatzera gure aita San Dominico. Curiositatez joan cen aditzera emaztequi hura. Bainan Jainkoak ukitu zion biotza eta instantean yoan cen Sainduarengana eta erran cion nahi cela confesatu. San Dominicoc aditu zuen, confesatu eta oraino eman cion asolucionea, eta penitenciaz eman cion Arrosario Saindua. Bainan miserablea bereala itzuli izan cen becatura. Sainduac aditu zuen erori cela becatuan, eta bereala yoan cen emaztequi arrengana eta berri berritan confesatu zuen.*

*Egun batez Jaincoac eracutsi cion infernua eta han icusi zituen anitz arrengatic damnatuac cirela. Bereala ikusi zuen liburu bat non ceuden bere becatu guciac tzenbatuac. Orduan estonaturic, arrituric, bainan confidenziaz beteric yoan cen Maria Sainduarengana, eta Mariac ardietsi cion penitencia eguiteco denbora. Ordu artaric asi cen penitencia eguiten, bainan beti oroitzen cen liburu artan icusi cituen becatuez, eta abala erraten cion vere Ama Virginari quenzetzala becatuac liburu artaric. Maria Saindua aguertu cizayon eta erran cion barcatuac cirela becatu guciac, bainan beti oroitzecco becatuez, Jaincoaren misericordiaz, pasione sainduaz, eta oroitzecco anitz becatu gutia-goequin infernura yoan cirela; eta erran cion egun artan berean zortzi urteco aur batec infernura yoan bear zuela becatu batengatic.*

## **OHARRAK**

Aita Adoainen euskara Ipar aldekoa da gehien bat. Hiztegian eta joskeran ageri da. *Deliberacione fermu* erabiltzen du, *asmo sendo* edo *erdal proposito firme* itzultzeko. *Fite ezagutu cituen* dio beste nunbait, laster, berehala ezagutu zituela agertzera emateko. Begiratu batekin ikusten da.